

Caritas Gipuzkoa 584 pertsonaren bidelagun izan da ezohiko erregularizazio-prozesuan

Erregularizatzea herritartasuna sortzea eta bizikidetza indartzea da

Ekainaren 30ean amaitu zen ezohiko erregularizazio-prozesurako eskaerak aurkezteko epea. Horrekin batera, Espainiako Gobernuak abian jarritako salbuespenezko neurri honi heldu nahi izan dioten migratzaileei informazioa, aholkularitza juridikoa eta babesa emateko lehen etapa ere amaitu da.


Prozesua hasi zenetik (apirilaren 16an), Caritas Gipuzkoa 584 pertsonaren bidelagun izan da: **471 heldu eta laguntzen dituen etxeetako 113 adingabe**. Erakundeak 12 boluntarioekin indartu du bere Zerbitzu Juridikoa, eskaerari erantzuteko eta gertuko arreta bermatzeko.

Egindako lanaren barruan, hasierako informazioa eman da, balorazio indibidualizatuak egin dira, dokumentazioa berrikusi da, espedienteak prestatu dira, eta akonpainamendua egin da izapideak egin bitartean. Caritas Gipuzkoak azpimarratu duenez, *“espediente bakoitzaren atzean pertsona bat edo familia bat dago, eta denbora bat darama bere bizitza hemen eraikitzen. Gure lana da pertsona horien bidelagun izatea, informazio faltagatik edo izapideen konplexutasunagatik inor prozeduratik kanpo gelditu ez dadin”*.

Mota askotako eskatzaileak

Gipuzkoako Caritasek lagundutako **471 heldu eskatzaileen** profila ez dator bat errealitate uniformearekin; aitzitik, askotariko bizi-ibilbideak biltzen ditu adinari, generoari, familiaren osaerari, jatorriari eta bizi diren udalerriri dagokienez. Hala ere, guztiek behar bera dute: beren egoera administratiboa erregularizatzea, egonkortasun eta segurtasun juridiko handiagoarekin bizi ahal izateko eta beren eskubideak modu eraginkorrean eskuratzeko.

Eskaera egin duten pertsona heldu gehienak adin aktiboan daude: % 97,9 18 eta 64 urte bitartekoak dira. Zehazki, % 73,0k 18-44 urte ditu, eta % 24,8k 45-64 urte. Datu horrek enplegu formala lortzeko aukerarekin lotzen du erregularizazioa, baita autonomia pertsonaleko eta familiarreko prozesuak egonkortasun handiagoko baldintzetan kotizatu eta garatzearekin ere.



- 18-44 urte: **344 pertsona** (% 73,0)
- 45-64 urte: **117 pertsona** (% 24,8)
- > 65 urte: **10 pertsona** (% 2,1)

Sexuari dagokionez, datuek diote emakumeen presentzia pixka bat handiagoa dela. Horrek esan nahi du garrantzitsua dela genero-ikuspegiarekin ere begiratzea prozesuari, kontuan hartuta administrazio-egoera irregularrak baldintzatu egiten duela lana, gizarte-babesa, etxebizitza eta autonomia ekonomikoa lortzea. Emakume migratzaile askoren kasuan, gainera, zailtasun horiek zaintza-erantzukizunekin, familiaren bizirautearekin eta lan prekarioekin gurutzatu daitezke.



242 emakume


% 51,4



229 gizon

% 48,6

Etxeetan, askotariko egoerak daude. Eskatzaileen % 53,3 banakako pertsonak dira. Nolanahi ere, Caritas Gipuzkoak nabarmendu du erregularizazio-prozesuak eragin nabarmena izan duela familietan, **izapideak egin dituzten pertsonen % 37,8 seme-alaba adingabeak dituzten etxeetakoak baitira** (bikoteak, nahiz guraso bakarrekoak). Horren adierazle da ere, familia horietan txertatuta dauden 113 adingabe sartu direla prozesu honetan.



- Banakako pertsona: **252 pertsona** (% 53,5)
- Seme-alabak dituzten bikoteak: **105 pertsona** (% 22,3)
- Guraso bakarreko familiak: **73 pertsona** (% 15,5)
- Seme-alabik gabeko bikoteak: **30 pertsona** (% 6,4)
- Bestelakoak: **11 pertsona** (% 2,3)

Honez gain, datuek askotariko migrazio-errealitatea erakusten dute. Eskatzaile heldu gehienak **Latinoamerikako** jatorrikoak dira -298 pertsona, **% 63,3**; **Afrikakoak** -154 pertsona, **% 32,7**; **Asiako** jatorriko pertsonak badira ere -19 pertsona, **% 4,0**.



% 63,3
298 pertsona



% 32,7
154 pertsona



% 4,0
19 pertsona

Eskatzaile gehienak Kolonbia (% 22,9), Honduras (% 12,5), Maroko (% 11,9), Aljeria (% 11), Peru (% 9,3) eta Venezuelatik (% 6,6) datoz. Pertsona horiek Gipuzkoako hainbat udalerritan bizi dira. Donostialdean biltzen dira eskaera egin duten helduen erdiak baino gehixeago -**250 pertsona, % 53,1**. Ondoren, **Goierri** dago, 69 heldu eskatzailearekin (**% 14,6**), eta presentzia bereziki esanguratsua du Ordizian, Beasainen, Idiazabalen eta Zumarragan. Ondoren, Oarsoaldea **% 11,9** eta Bidasoa **% 10,8** daude.

Fase berri bat, pertsonen bizitzan zuzeneko eragina duena

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, prozesua beste fase batean sartzen da orain, Administrazioak espedienteak izapidetzeko onartzean. Izapideak egiteko onartu dela jakinaraztean, atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) jarri behar da, pertsonari esleitutakoa. Baina, batez ere, espediente behin betiko ebazten den bitartean, bertan bizitzeko eta besteren kontura lan egiteko behin-behineko baimena dakar.

Ebazpena organo eskudunaren erregistroan eskaera sartu eta hurrengo egunetik gehienez hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko litzatekeen arren, hain zuzen ere izapidetzeko onartzeak sortzen ditu eskatzaileentzat garrantzi berezia duten lehenengo ondorio juridikoak.

Horietako askorentzat, une hori da prozeduraren benetako inflexio-puntua: irregulartasun administratibo bat atzean uzten hastea, eta atea irekitzea enplegu formala lortzeko, Gizarte Segurantzako sisteman kotizatze eta eskubideak segurtasun eta egonkortasun handiagoko baldintzetan baliatzeko aukerari.

Datozen hilabeteetan, Caritas Gipuzkoak pertsonei laguntzen jarraituko du haien espedienteen jarraipena egiten eta tramitera onartzearen ondoriozko izapideak kudeatzen. Caritasen ustez, funtsezkoa da administrazio eskudunek espedienteak arin izapidetzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izatea, onuradunek lehenbailehen eskuratu ahal izan ditzaten ezohiko neurri horrek onartzen dituen eskubideak.

Izapidetzeko onarpen bakoitza aurrerapen administratibo bat baino askoz gehiago da: erregularizazio-prozesuaren hasiera eraginkorra da, eta pertsonei aukera ematen die gizarteratze- eta laneratze-etapa berri bati ekiteko, eskaeraren behin betiko ebazpenaren zain dauden bitartean.



Ez gara espedienteek buruz ari, baizik eta pertsonen buruz

Hauek dira Caritas Gipuzkoak prozesu honetan lagun egin dien pertsona batzuen istorioak. Benetako bizitzak dira, eta izena aldatu zaie haien intimitatea babesteko.

Carmen haurdun etorri zen Perutik. Senarrarekin batera etorri zen, hura lan-kontratu batekin iritsi baitzen Irunera. Azken urte eta erdian familia zaintzen aritu da, eta bere egoera erregularizatu ahal izatea espero du, senarrarekin batera negozio txiki bat abian jartzeko

Ahmed Aljeriatik iritsi zen 2025eko abuztuan. Familia ugari batetik dator, eta bere herrixkan ez zuen etorkizunik. Bi hilabetez kalean bizi izan zen, Donostian, eta 6 daramatza Hotzaldin lo egiten, Caritasen gaueko harrera-zentroan. Han, gaztelania ikasten ari da, eta, bere egoera erregularizatzea lortzen duenean, ile-apaintzaile gisa lan egin nahi luke.

Elisa desgaitasuna duen semearekin etorri zen Kolonbiatik Donostiara. Hemen ez zuen aurkitu zain zeukan laguna. Parrokiako Caritasekin jarri zen harremanetan, eta orain Zubia programako pisu batean bizi da. Ordu gutxi batzuetan adineko pertsona bat zaintzen lan egiten du, eta arreta soziosanitarioko laguntzaile gisa trebatzen ari da, modu legalean lan egin ahal izateko.

José Carlos duela 11 hilabete iritsi zen Venezuelatik, alabarekin eta arrebarekin. Hiru hilabete geroago gurasoak ekarri zituen, eta guztiek eskatu zuten asiloa. Itxaronaldi horretan, ezohiko erregularizazio-prozesuan murgildu ziren. Dagoeneko jaso dute beren bi espedienteren izapidetze-onarpena. Hiru izapidetzen ari dira oraindik. José Carlosek kontratu bat lortu nahi du Zumarragan bere familiarekin bizitza berri bati ekiteko.

Ousmane Senegaletik etorri zen, han 2 urteko semea utzita. Itsasartea patera batean gurutzatu zuen beste 200 pertsonarekin batera. Patuak Lasarteraino ekarri zuen, eta herrikide batek hartu zuen etxean. Eskertuta dago bizilagunekin, CEAREkin eta parrokiako Caritasekin. Denbora honetan guztian, gaztelania ikasi du HHEn, eta lan batetik bestera ibili da. Dagoeneko jaso du bere espedientea izapidetzeko onarpena, eta lehen ikastun gisa aritutako enpresa batean ari da lanean. Semea berriro besarkatzearekin egiten du amets.